Elorrioko udala

Titularra: Elorrioko Udalako Turismoa eta Ondarea Saila.

Gaia: "Harria eta taladrina" argitalpenerako edukien sortze-lanak esleitzeko lizitazioa.

Izenburua: KLAUSULA TEKNIKOEN AGIRIA "HARRIA ETA TALADRINA" ARGITALPENERAKO EDUKIAK SORTZEA ESLEITZEKO.

Hasiera-data: 2022ko martxoaren 1a

1.- Helburua.

Industri Ondare eta Herri Laneko Euskal Elkarteak (IOHLEE), Bizkaiko Foru Aldundiak eta hainbat historiagilek Elorrioko Udalari adierazi diotenez Elorrioren industria ondarea ikertzea interesgarria da, herriko zein Euskal Herriko ondarea ezagutu eta balioan jartzeko, bere ezaugarri orokor eta espezifikoengatik. Euskal Herriko industrializazio prozesuak izan zituen ezaugarri estruktural zein historikoak betetzen ditu Elorrioko industrializazio-prozesuak ere. Ikustarazteko eta balioan jartzeko helburua are interesgarriagoa da herri honen kasuan, izan ere, ondare monumentalak ondare industriala estaltzen baitu bertan.

2.- Agiriaren xedea.

Agiri honen xedea lizitazio prozedura ireki bidezko deialdia arautu behar duten baldintza teknikoak zehaztea da.

Titular: Departamento de Turismo y Patrimonio del Ayuntamiento de Elorrio.

Tema: Licitación para la adjudicación de la creación de contenidos para la publicación "Harria eta taladrina".

Título: PLIEGO DE CLÁUSULAS TÉCNICAS PARA LA ADJUDICACIÓN DE LA CREACIÓN DE CONTENIDOS PARA LA PUBLICACIÓN "HARRIA ETA TALADRINA".

Fecha de inicio: 1 de marzo de 2022

1.- Objetivo.

La Asociación Vasca de Patrimonio Industrial y Obra Pública (IOHLEE), la Diputación Foral de Bizkaia y historiadores e historiadoras han señalado al Ayuntamiento de Elorrio el interés de investigar el patrimonio industrial de Elorrio para conocer y poner en valor el patrimonio, tanto de la localidad como del País Vasco, por sus características generales y específicas. El proceso de industrialización de Elorrio cumple con las características estructurales e históricas que tuvo el proceso de industrialización del País Vasco. El objetivo de visibilización y puesta en valor es aún más interesante en el caso de esta localidad, donde el patrimonio monumental oculta el patrimonio industrial.

2.- Objeto del documento.

El presente documento tiene por objeto determinar los requisitos técnicos que han de regir la convocatoria por el procedimiento abierto de licitación.

3.- Kontratuaren xedea.

Kontratuaren xedea da “Harria eta taladrina” argitalpenerako eduki dibulgatiboen sortze-lanak esleitzea. Kontratua ezin da loteetan banatu.

4.- “Harria eta taladrina” argitalpenaren ezaugarriak.

- Aldizkaria da. Urtean ale bi argitaratuko dira, uda aurretik bat eta ostetik bestea.

- Gaia: Elorrioko ondare industriala. Ale bakoitza azpi-gai bati buruzko monografikoa izango da. Azpi-gaiak Udalarekin adostuko dira eta era honetakoak izango dira: demografia, lantegiak, langileen auzoak, trena, kooperatibismoa, paisaia,… Kontuan izan behar da lehenengo alea argitara emana dela 2022ko otsailean, gaia “ondare industriala”-ren kontzeptua bera izan delarik.

- Ale bakoitza 16 orrialdeko A4 bertikala izango da euskaraz eta gaztelaniaz. Espazioaren erdia emango zaio hizkuntza bakoitzari eta eduki berbera emango da hizkuntza bietan. Arau hau betetzetik salbuetsita daude maketatzean nabarmentzen diren testu zatitxoek. Ale guztietan maketazio irizpide berberak erabiliko dira, lehenengo alearen itxura bera gordetzen saiatuz (maketazioa, formatoak, letra-mota, koloreak,…).

- Jatorrizko testuak euskaraz zein gaztelaniaz idatzi ahal izango dira eta kalitate maila gorena eskatuko da jatorrizkoetan zein itzulitako testuetan.

- Ale bakoitzaren osaera:

1. Editoriala. IOHLEE-ko kide batek idatzia izatea eskatuko da.
2. Gogoetak eta inpresioak: Elorrioko herritarren testigantzak izango dira, ikerketa bitarteko elkarrizketetatik ateratakoak.

3.- Objeto del contrato.

El objeto del contrato es la adjudicación de los trabajos de creación de contenidos divulgativos para la publicación “Harria eta taladrina”.
El contrato es indivisible por lotes.

4.- Características de la publicación “Harria eta taladrina”.

- Es una revista. Se publicarán dos ejemplares al año, uno antes del verano y otro después.
- Tema: el patrimonio industrial de Elorrio. Cada ejemplar será un monográfico sobre un subtema. Los subtemas se acordarán con el Ayuntamiento y serán del tipo: demografía, talleres, barrios obreros, el tren, cooperativismo, paisaje,…. Hay que tener en cuenta que el primer ejemplar ha sido publicado en febrero de 2022, siendo el tema el concepto mismo de “patrimonio industrial”.
- Cada ejemplar tendrá 16 páginas en A4 verticales en euskera y castellano. Se asignará la mitad del espacio a cada idioma y el contenido será idéntico en ambos. Se excluyen de esta norma las entradillas, textos destacados, etc. que suelen maquetarse en un solo idioma. En todos los ejemplares se utilizarán los mismos criterios de maquetación, procurando guardar el mismo aspecto que el primer ejemplar (maquetación, formatos, tipo de letra, colores,…).
- Los textos originales se podrán redactar tanto en euskera como en castellano y se exigirá máxima calidad tanto en los textos originales como en los traducidos.
- Composición de cada ejemplar:

1. Editorial. Se exigirá que esté escrito por persona miembro de IOHLEE.
2. Reflexiones e impresiones: serán testimonios de personas de Elorrio extraídas de entrevistas realizadas durante la investigación.

3. Erreportaje sakona: errekonozitutako aditu batek idatzia.

4. Bitxikeriak: Elorrioko kontu espezifikoak, beti ere, zenbaki honetako azpi-gaiari lotutakoak.

5. Argazkiak: dibulgazio mailak eta aldizkari formatuek eskatzen duten argazki kopuruaz hornitzea eskatuko da. Testu eta irudi guztiak Elorrion azpi-gai bakoitzari buruzko ikerketan oinarrituak izango dira.

- Sakontasun maila. Aldizkariak ez dira profesionalentzako idatziko. Herritar gehienentzako dibulgazio mailan idatzita egotea eskatuko da.

5.- Zerbitzuak ematea.

- Esleidunak adostutako azpi-gaiak ikertu beharko ditu, bai aurrez existitzen diren argitalpen zein artxiboetara joz bai bizirik dirauten testigantzen bilako elkarrizketak eginez. Historiografiako gainontzeko metodoak ere erabiltzea gomendatzen da. Ikerketa amaitutakoan, Udalaren oniritzia eskatuko da edukiak sortzen hasteko.
- Urtean ale monografiko bi idatziko dira, uda eta urte amaiera inguruetan.
- Maketazio eta inprimaketa lanak ez dira kontratu honen xede. Bai, ordea, Udalak izendatzen duen maketatzaileekiko koordinazioa.
- Monografikoen gaiak Udalarekin adostuko diren arren, esleidunak aholkulari lanak beteko ditu Udalari irizpideak emanez bai gaiez bai ikerlari edota idazleez.
- Lana entregatzeko epeak adostuak izango dira, betiere kontuan izanda, urtean ale bi buzoiratu nahi direla.

3. Reportaje exhaustivo: escrito por persona experta reconocida.

4. Curiosidades: asuntos específicos de Elorrio, siempre relacionados con el subtema del ejemplar en cuestión.

5. Fotos: se requerirá ilustrar con el número de fotografías que el nivel de divulgación y los formatos de revista requieren. Todos los textos e imágenes estarán basados en la investigación sobre cada subtema en Elorrio.

- Nivel de profundidad. Las revistas no se escribirán para profesionales. Se exigirá que estén escritas a nivel divulgativo para la mayoría de la población.

5.- Prestación de servicios.

- La adjudicataria deberá investigar los subtemas acordados, bien recurriendo a publicaciones o archivos existentes, bien realizando entrevistas en busca de testimonios de supervivientes. También se recomienda el uso del resto de métodos historiográficos. Una vez finalizada la investigación, se solicitará el visto bueno del Ayuntamiento para iniciar la creación de contenidos.
- Se escribirán dos ejemplares monográficos al año, uno sobre el verano y a finales de año el otro.
- Los trabajos de maquetación e impresión no son objeto del presente contrato. Por el contrario, sí la coordinación con quienes designe el Ayuntamiento para labores de maquetación.
- Aunque los temas de los monográficos se acordarán con el Ayuntamiento, la adjudicataria asesorará al Ayuntamiento sobre temas de interés y recomendará las personas que investiguen y escriban.
- Los plazos de entrega serán consensuados, teniendo en cuenta que se pretende el buzoneo de dos ejemplares al año.

6.- Esleipendunaren beste betekizun batzuk.

- Kontratuaren hasieratik enpresa ordezkatuko duen koordinatzaile bat izendatzea, Udalarekiko interlokutorea izango dena, aurrez aurreko bileretara zein telematikoetara bertaratuko dena.
- Lan harremanak euskaraz gauzatuko dira eta Udalaren Turismoa eta Ondarea Sailarekin izango dira.
- Elorrioko Udalaren komunikazio-ekintzetan parte hartzea, hala eskatzen zaionean.

7.- Zerbitzua esleitzeko irizpideak eta baremoa.

- Zerbitzua eskaintzeko proiektua: 0-49 puntu. Atal honetan honakoak baloratuko dira:
  - Talde erredaktorea emakumez osatuta egotea. 10 punturaino.
  - Erredaktoreen eta enpresaren kurrikuluma:
    - esperientzia izatea ikerketak genero ikuspegitik egiten. 5 punturaino.
    - administrazio publikoarekiko lankidetzan esperientzia izatea ondarearen zabalkundean. 5 punturaino.
    - ondare industrialaren ikerkuntzan esperientzia izatea. 5 punturaino.
    - ondare industriala zein genero ikuspegiko ikerketan publikazioak izatea. 5 punturaino.
  - Egitasmoa euskaraz aurkeztea. 5 puntu.
  - Ale monografikoen 8 azpi-gaien proposamena. 5 punturaino.
  - Herriko historiagile gazteak eta Lamunarrieta memoria historikoaren elkartea proiektuan inplikatzea. 2 eta

6.- Otras obligaciones de la adjudicataria.

- Designar una persona coordinadora que represente a la empresa desde el inicio del contrato, que sea la interlocutora con el Ayuntamiento, quien asistirá a las reuniones presenciales como telemáticas.
- Las relaciones laborales se desarrollarán en euskera y serán con el Departamento de Turismo y Patrimonio del Ayuntamiento.
- Participar en las acciones de comunicación del Ayuntamiento de Elorrio cuando sea requerida para ello.

7.- Criterios y baremo de adjudicación del servicio.

- Proyecto de prestación del servicio: 0-49 puntos. En este apartado se valorarán:
  - Que el equipo redactor esté compuesto por mujeres. Hasta 10 puntos.
  - Curriculum de las personas redactoras y la empresa:
    - experiencia en la realización de investigaciones desde la perspectiva de género. Hasta 5 puntos.
    - experiencia de colaboración con la administración pública en la difusión del patrimonio. Hasta 5 puntos.
    - experiencia en investigación del patrimonio industrial. Hasta 5 puntos.
    - publicaciones sobre la investigación del patrimonio industrial y la perspectiva de género. Hasta 5 puntos.
  - Presentación del proyecto en euskera. 5 puntos.
  - Propuesta de 8 subtemas para los ejemplares monográficos. Hasta 5 puntos.
  - Implicación en el proyecto de personas jóvenes historiadoras locales y de la asociación de memoria

2 puntu, hurrenez hurren.

- Itzulpenak enpresa espezialdunek egitea. 5 puntu.

Hautaketa-prozesuan jarraitu ahal izateko, gutxienez 30 puntu lortu beharko dira, proiektuak ematen dituen gehienezko 49 puntuetatik.

- Eskaintza ekonomikoa: 0-51 puntu.

8.- Kontratuaren iraupena.

Kontratuak bi urteko iraupena izango du, kontratu administratiboa sinatzen den egunetik zenbatzen hasita. Urtez urte beste bi urtez luzatu daiteke, beraz, gehienezko iraupena lau urtekoa izan dezakeelarik.

9.- Hizkuntza irizpideak.

Kanpora begira egiten diren txostenak, prentsa-oharrak eta gainerakoak euskaraz eta gaztelaniaz idatziko dira, lehentasuna euskarari emanez. Gainerako ekintzak ere indarrean dagoen euskararen udal araudiak arautuko ditu. Bereziki zainduko da hizkuntza paisaia eta irizpide hau "lehenengo berbea euskaraz".

10.- Berdintasunerako klausulak.

- Esleipendunak eta azpikontratistek kontratua betearazten duten denboran sortuko dituzten euskarrietan ez dute hizkuntza modu sexistan erabili behar, ezta irudiak ere.
- Esleipendunak kontratuaren eremuan emakumeen eta gizonen egoeraren gaineko azterketa egingo du, eta desberdintasunak antzematen baditu horiek zuzentzeko neurriak proposatuko ditu.
- Esleipendunak ebaluazio-adierazleak eta -mekanismoak egin beharko ditu, kontratua burutu ondoren aztertu ahal izateko benetako eragina emakume eta gizonengan eta berdintasunaren bidean aurrera egitea lortzeko.

histórica Lamunarrieta. 2 y 2 puntos, respectivamente.

- que las traducciones se realicen por empresas especializadas. 5 puntos.

Para poder continuar en el proceso selectivo se deberá obtener un mínimo de 30 puntos, sobre 49 puntos máximos que otorga el proyecto.

- Oferta económica: 0-51 puntos.

8.- Duración del contrato.

La duración del contrato será de dos años, contados a partir de la fecha de la firma del contrato administrativo. Podrá prorrogarse año a año hasta dos años más, pudiendo, por tanto llegar a tener una duración máxima de cuatro años.

9.- Criterios lingüísticos.

Los informes que se realicen de cara al exterior, las notas de prensa y demás se redactarán en euskera y castellano, dando prioridad al euskera. El resto de actividades también se regirán por la normativa municipal de euskera vigente. Se cuidará especialmente el paisaje lingüístico y el criterio de "la primera palabra en euskera".

10.- Cláusulas de igualdad.

- La adjudicataria y las subcontratistas deberán hacer uso no sexista del lenguaje y de las imágenes en los soportes que generen durante la ejecución del contrato.
- La adjudicataria realizará un análisis de la situación de mujeres y hombres en el ámbito contractual y si detecta desigualdades propondrá medidas para corregirlas.
- El adjudicatario deberá elaborar indicadores y mecanismos de evaluación que permitan analizar el impacto real en mujeres y hombres y en el camino hacia la igualdad una vez finalizado el contrato.

11.- Inklusioa eta integrazioa.

Ikerketako helburu Elorrioko gizarte osoa da, bere aniztasunean. Testuek anitzen integrazioa izango dute helburu.

12.- Udalarekiko koordinazioa eta zerbitzuaren jarraipena.

Turismo eta Ondarea Informazio Batzordeak zerbitzu hauen jarraipena egingo du. Gainera, udaleko beste sail batzuekiko lankidetza bultzatuko da, adibidez honako hauekin: euskara, ingurumena eta berdintasuna. Elorrioko Udalak aproposak uste dituen bideak erabiliko ditu zerbitzua hitzartu moduan ematen dela egiaztatzeko. Halaber, eskumena izango du herritar edo beste agente batzuekiko elkarrizketetan parte-hartze pasiboa izateko.

13.- Kontratuaren prezioa.

Zerbitzu honen lizitazio aurrekontua 8.000,00 eurokoa da urteko, BEZa barne (%21). Lizitatzaileek beherantz hobetu ahal izango dute kopuru hau. Urteko faktura urte bakoitzeko ale bien maketazioak gauzatutakoan ordainduko da.

14.- Baliabideak eta jabegoa

Esleipendunak bere baliabide propioekin burutuko ditu kontratua betetzeko beharrezko lanak. Udalak lankidetza eta erraztasun guztiak emango ditu behar diren kontaktuak lortzeko, eta liburutegiko “tokiko fondoa” eta elkarrizketetarako udal lokalak erabiltzeko.
Jatorrizko lanaren gaineko egile-eskubideei kalterik egin gabe, Elorrioko Udala argitaratutako edukiak erabiltzeko eta erreproduzitzeko eskubideen jabe da.
Jabe da baita ikerketaren zehar egiten diren grabaketena ere.

11.- Inclusión e integración.

El objeto de estudio es toda la población de Elorrio, en su diversidad.
Los textos pretenderán la integración de la variedad.

12.- Coordinación con el Ayuntamiento y seguimiento del servicio.

La Comisión Informativa de Turismo y Patrimonio realizará el seguimiento de estos servicios. Además, se impulsará la colaboración con otros departamentos municipales, como el de euskera, medio ambiente e igualdad. El Ayuntamiento de Elorrio utilizará los medios que estime oportunos para verificar que el servicio se presta de la forma convenida. Asimismo, será competente para participar de forma pasiva en las conversaciones con las personas entrevistadas.

13.- Precio del contrato.

El presupuesto de licitación de este servicio es de 8.000,00 euros anuales, IVA incluido (21%). Las licitadoras podrán mejorar esta cantidad a la baja.
El pago de la factura anual se realizará una vez realizadas las maquetaciones de ambos ejemplares anuales.

14.- Recursos y propiedad

La adjudicataria realizará con sus propios medios los trabajos necesarios para la ejecución del contrato. El Ayuntamiento facilitará conseguir los contactos necesarios, el acceso al fondo local de la biblioteca municipal y utilizar los locales municipales para las entrevistas.
Sin perjuicio de los derechos de autor sobre la obra original, el Ayuntamiento de Elorrio se erige propietario de los derechos de uso y reproducción de los contenidos publicados, así como de las grabaciones que se realicen durante la investigación.

Elorrion, 2022ko otsailaren 2an

Idoia Buruaga Bárcena
Alkatea